

Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia EUSKADI*n* 2019



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



GAZTEEN EUSKAL
BERDINTASUN OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia EUSKADIn 2019

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2020

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Edizioa:

1a, 2020ko abendua

Ale kopurua:

60 ale

Internet:

www.euskadi.eus

Egilea:

Gazteen Euskal Behatokia

Ikerketa-taldea:

Miren Bilbao Gaztañaga, Nieves Corcuera Bilbao eta Oskar Longo Imatz

Itzulpena:

IZO (Itzultzaileen Zerbitzu Ofiziala)

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinu grafikoa eta maketazioa:

Gazteen Euskal Behatokia

Inprimaketa:

Eusko Jaurlaritzako Inprimaketa eta Erreprografia Zerbitzua

L.G.: LG G 00792-2020



Dokumentuaren edizio honetan jasotako edukiak lizentzia honekin argitaratu dira: Aitorpena - Ez-komertziala - Lan eratorririk gabea 4.0
Unported de Creative Commons (informazio gehiago
http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES)

Aurkibidea

SARRERA	4
METODOLOGIA.....	5
1. 18-34 URTE BITARTEKO GAZTEEN EGOERA EMANTZIPAZIOARI DAGOKIONEZ	7
2. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN ETXEBIZITZEN EDUKITZA-ERREGIMENA ETA ETXEBIZITZAKO GASTU EKONOMIKOA	10
3. EMANTZIPATUTAKO GAZTEAK BIZI DIREN ETXEBIZITZEN ETA INGURUNEAREN EZAUGARRIAK	17
4. EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEN ETXEBIZITZA-PREMIA	22
5. ETXEBIZITZA-PREMIA DUTEN GAZTE EMANTZIPATU GABEEN IRITZIAK ETXEBIZITZA- ARAZOAREN KONPONBIDEEI BURUZ.....	31
6. EMAITZA ESANGURATSUENAK	35

SARRERA

Gazteen Euskal Behatokiak, gazteen hainbat arlotako egoeraren ikuspegi eguneratua izateko eginkizunetan, berriz ere aztertu du Euskadiko gazteen egoera emantzipazioari dagokionez.

Gazteen emantzipazioa fenomeno minoritarioa da Euskadin; izan ere, emantzipatuta bizi diren 35 urtetik beherako pertsonak gutxiengoa dira. Hori arazo bat da bizi-proiektuak garatzeko; baina arazo bat da, baita ere, gizarte osoarentzat. Izan ere, berandu emantzipatzeak familia berriak osatzea atzeratzea dakar eta, ondorioz, seme-alaba kopurua murriztea, eta horrek biztanleriaren zahartzea areagotzen du, eta hori arazo bat da dagoeneko euskal gizartean. Eustaten datuen arabera, Euskadiko biztanleriaren batez besteko adina 46,7 urte da, eta 35 urtetik beherako pertsonen ehunekoa % 32,5, hau da, guztizkoaren herena (adin-talde horretako pertsona-kopurua 712.435 da).

Emantzipatzeko arazo nagusia, gazteek beraiek adierazten dutenaren arabera, etxebizitza bat lortzeko zailtasuna da, diru-sarrera propio nahikoak eta egonkorak izatea zaila delako eta merkatu librean erosteko edo alokatzeko etxebizitzak garestiak direlako.

Ikerketa hau 2019ko Etxebizitza Beharrei buruzko Inkestan jasotako datuetan oinarritzen da. Inkesta hori Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Estatistika Organo Bereziak egin du, zeinak 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen buruzko datuak eman baitizkio Gazteen Euskal Behatokiari, horrek datuok azter ditzan eta txosten hau idatz dezan.

Bai inkestan, oro har, bai txosten honetan, datu orokorrak aztertzen dira, hala nola emantzipatutako pertsonen ehunekoa edo diru-sarrera propioak izatea; baina baita datu zehatzak ere, esaterako, emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzaren ezaugarriak, etxebizitza behar duten gazteek dituzten zailtasunak edo etxebizitza-politikarekiko dituzten lehentasunak eta iritziak.

Gainera, 2019ko datuak Etxebizitza Beharrei buruzko Inkestaren aurreko edizioetako datuekin alderatuko dira, hain zuzen ere 2015ean eta 2017an jasotakoekin.

Gogoratu behar da, nolanahi ere, 2019ko datuak Covid-19k sortutako osasun-krisiaren aurrekoak direla, bai eta krisi horrek enpleguan eta, ondorioz, gazte batzuen emantzipazio-aukeretan izan duen eraginaren aurrekoak ere, krisiak emantzipazio-aukerei larriki eragin ahal izan baitie. Balizko eragin hori 2021eko azterlanean egiaztatu ahal izango da.

METODOLOGIA

Txosten honetan aztertutako datuak Etxebizitza Beharrei buruzko Inkestatik atera dira. Inkesta hori bi urtean behin egiten du, etxez etxe, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Estatistika Organo Bereziak. Inkesta horrek, alde batetik, familia-galdetegi bat du, etxeko hainbat kideren egoerari eta horiek bizi diren etxebizitzaren ezaugarriei buruzko hainbat galderarekin; eta, bestetik, banakako bi galdera-sorta ditu, bat Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitza-premia duten eta diru-sarrera propioak dituzten pertsonentzat, eta bestea etxebizitza-premia duten baina diru-sarrera propiorik ez duten pertsonentzat. Horri esker, hainbat egoerari buruzko datuak eskuratu ahal izan dira.

Familiei zuzendutako galdetegia betetzeko, galdera-sorta, gutxienez, 4.000 etxeri egiten zaie, lagin minimoa osatze aldera. Lagina ausaz hautatzen da Eustateko Biztanleriaren Erregistro Estatistikoan eta Etxebizitzen Direktorioan, lurralde historiko bakoitzaren eta udalerri tamainaren (hiriburuak, 20.000 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerriak eta 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak) arabera estratifikatutako laginketaren bidez. Banakako galdera-sorta betetzeko, familien laginean hautatutako etxeetan bizi diren emantzipatu gabeko eta etxebizitza-premia duten 18 eta 44 urte bitarteko pertsona guztiak elkarrizketatu dira.

2019ko edizioan, inkesta-aldia 2019ko irailaren 23tik 2020ko urtarrilaren 10era arte luzatu zen. Denbora horretan zehar, 4.507 familia-inkesta egin ziren beste hainbat etxetan, non 18 eta 44 urte bitarteko 3.663 pertsona identifikatu ziren (etxe horietan, guztira, 12.522 pertsona bizi ziren). Ikusi zenaren arabera, 18 eta 44 urte bitarteko 1.927 pertsona ez zeuden emantzipatuta, eta 705 pertsonak etxebizitza eskuratzeko beharra adierazi zuten; 705 pertsona horiek banakako galdera-sortak bete zituzten.

Inkesta horien guztien artean, 18 eta 34 urte bitarteko pertsonak, guztira, 2.238 dira, eta honela banatzen dira: 498 emantzipatuta eta 1.740 emantzipatu gabe daude, eta azken horietatik 566k diote etxebizitza-premia dutela Euskadin.

Lagin horri (2.238 pertsonakoa) egotz dakiokeen lagin-errorea $\pm$ % 2,1ekoa da, % 95eko konfiantza-mailarako eta erabateko ausazkotasunaren kasuan ($p = q = 0,5$). Emantzipatutako gazteen artean, lagin-errorea $\pm$ % 4,4koa da, eta emantzipatu gabeko gazteen artean, berriz, $\pm$ % 2,3koa; azken horien artean etxebizitza behar duten gazte emantzipatu gabeei dagokien lagin-errorea, $\pm$ % 4,1ekoa da.

Gainera, 2.238 inkesta horiek honela banatzen dira sexuaren, adinaren eta lurraldearen arabera: 1.063 emakume eta 1.175 gizon izan ziren; 1.081ek 18 eta 24 urte bitartean zituzten, 588k 25 eta 29 urte bitartean, eta 569k 30 eta 34 urte bitartean; eta, azkenik, 488 elkarrizketatu Araban bizi ziren, 935 Bizkaian eta 815 Gipuzkoan.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Estatistika Organo Bereziak Gazteen Euskal Behatokiari aztertzeko eman dion datu-basean, 18 eta 34 urte bitarteko pertsona horiek galdera-sorta bakoitzean emandako erantzunak jasotzen dira, bai eta datuak haztatzeko eta milakotan bihurtzeko aldagaia ere.

Gazteen Euskal Behatokiak erantzun horiek aztertu eta txosten hau idatzi du, eta, askotan, emaitzak beste estatistika-iturri ofizial batzuetako datuekin alderatu ditu, gazteen egoera Euskadiko biztanleria osoaren egoerarekin alderatzeko.

Datuen jatorria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Etxebizitza Beharrei buruzko Inkesta

18 eta 34 urte bitarteko pertsonen egindako inkesta-kopurua: 2.238 (498 pertsona emantzipatu eta 1.740 pertsona emantzipatu gabe)

Inkesta-aldia: 2019ko irailaren 23tik 2020ko urtarrilaren 10era

Datuen azterketa eta txostenaren egilea: Gazteen Euskal Behatokia

1. 18-34 URTE BITARTEKO GAZTEEN EGOERA EMANTZIPAZIOARI DAGOKIONEZ


2019an, Euskal Autonomia Erkidegoko 18 eta 34 urte bitarteko biztanleen % 36,0 emantzipatuta zegoen. Emantzipatutako pertsonatzat hartzen dira etxebizitzaren titularrak direnak edo, hala ez badira, gurasoekin edo beste senide batzuekin (neba-arreba, aitona-amona, osaba-izebekin) bizi ez direla adierazten dutenak¹.

Adin-tarte horretako (18-34 urte) emakume emantzipatuen ehunekoa handiagoa da gizon emantzipatuen baina (% 40,1 eta % 32,0, hurrenez hurren).

Baina alde handiena adinak markatzen du. 25 urte bete aurretik, hau da, 18 eta 24 urte bitartekoen artean, gazteen % 8,1 baino ez dago emantzipatuta; 25 eta 29 urte bitartekoen artean, % 33,1; eta 30 eta 34 urte bitartekoen artean, berriz, gehiengoa dira jada emantzipatuta daudenak, hain zuzen ere % 70,1.

Atzerriko nazionalitatea duten gazteen artean ere gehiengoa dira emantzipatuta daudenak (% 73,8), Espainiako nazionalitatea duten gazteen artean ez bezala (% 28,6).

1.1. grafikoa




18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen ehunekoa, guztira, ez da asko aldatu azken urteotan: 2015ean, 35 urtetik beherako gazteen % 37,0 zeuden emantzipatuta, eta 2017an, % 35,6.

Euskadin eta Europar Batasuneko herrialdeetan emantzipatutako 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoa alderatzen badugu, ikusiko dugu Euskadik ehunekorik txikienetako bat duela, eta EBko batez bestekoaren azpitik dagoela argi eta garbi.

¹ Txosten honetan aurkezten diren emantzipatutako pertsonen datuak Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Beharrei Buruzko Inkestatik atera dira. Datu horiek, inkesta bateko beste edozein datuk bezala, errore-marjina bat dute. Hori kontuan hartuta, ikusten dugu datuak oso koherenteak direla Gazteen Euskal Behatokiak online estatistiketan aurkeztutakoekin. Estatistika horiek kalkulatzeko Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI) hartzen da oinarri. Biztanleria Aktiboaren Inkestan oinarrituta kalkulaturako datuen arabera (errore-marjina bat dute horiek ere), 2019an, 18-34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen ehunekoa % 38,5 zen; gizonen artean % 34,1 eta emakumeen artean % 43,0.

1.2. grafikoa

18 eta 34 urte bitarteko emantzipatuen ehunekoa Euskadin eta EBko herrialdeetan 2019an



* Izentxoarekin markatutako herrialdeen datuak 2018koak dira


Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eurostaten datuak oinarri hartuta

Aurreko datuarekin bat etorriz, ikusten dugu Euskadin emantzipatzeko batez besteko adina berantiarra dela, eta azken urteotan ere ez dela aldatu. 2015ean 30,1 urtekoa zen, 2017an 30,4 urtekoa eta 2019an 30,2 urtekoa. Hau da, euskal gazteak, batez beste, 30 urterekin emantzipatzen dira.

Emantzipatzeko batez besteko adin hori Europako batez bestekoa (25,9 urte) baino dezente handiagoa da, eta soilik Kroazian eta Eslovakian erregistratzen dira batez besteko adin handiagoak.

Aldiz, Eskandinaviako herrialdeetako gazteak askoz ere lehenago emantzipatzen dira. Izan ere, unibertsitatera joateko gurasoen etxea uzten dute, eta laguntza publikoak izaten dituzte hori egiteko.

1.3. grafikoa



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eurostaten datuak oinarri hartuta

Gainera, Euskadin emantzipatzeko batez besteko adina ez dator bat euskal gazteek emantzipatzeko adierazitako adin idealarekin. 2017an, 18 eta 34 urte bitarteko pertsonek uste zuten, batez beste, emantzipatzeko adin egokiena 23,9 urte zela². Horrek esan nahi du Euskadiko gazteak, batez beste, nahiko luketena baino sei urte geroago emantzipatzen direla.

² Oskar Longo, Miren Bilbao eta Nieves Corcuera (2020): *Gazteen emantzipazioa Euskadin 2017* [online] Hemen eskuragarri:

https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/emantzipazio_liburua_17/eu_def/adjuntos/Emancipacion%20de%20la%20juventud%202017_eus.pdf


2. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN ETXEBIZITZEN EDUKITZA-ERREGIMENA ETA ETXEBIZITZAKO GASTU EKONOMIKOA

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gehienak (% 55,7) bikotekidearekin bizi dira: % 21,5 bikotekidearekin soilik eta % 34,2 bikotekidearekin eta seme-alabekin.

Bestetik, % 17,2 bakarrik bizi da; % 10,5 lagunekin; % 2,8 seme-alabekin baina bikotekiderik gabe, eta gainerako % 14ak beste egoera batean dagoela dio (beste senide batzuekin... bizi da).

2.1. grafikoa

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen bizikidetza-modua
2019an (%)



Adinean aurrera egin ahala, gora egiten du bikotekidearekin edo bakarrik bizi direnen ehunekoak (% 61,2 eta % 19,3, hurrenez hurren, 30-34 urte bitartekoen artean, eta % 45,3 eta % 13,1, hurrenez hurren, 30 urtetik beherakoen artean); eta behera egiten du, berriz, lagunekin bizi direnen ehunekoak (% 7,7 30-34 urte bitarteko gazte emantzipatuen artean, eta % 15,6, berriz, 30 urtetik beherakoen artean. Hala ere, 25 urtetik beherako gazte emantzipatuei erreparatzen badiegu, lagunekin bizi direnen ehunekoa % 31,3ra arte iristen da).

Emantzipatutako gazteen etxeetako bizilagunen kopurua, oro har, 3 izan ohi da, 2,9 hain zuzen ere. Etxeko bizikideen batez besteko kopuru hori Euskadiko etxeetako bizikideen batez bestekoa (2,4) baino zertxobait handiagoa da; horren arrazoia ulertzeko, bakarrik bizi diren nagusikoen bolumena izan behar da kontuan (65 urtetik gorako lau pertsonatik ia bat, % 23,1, hain zuzen ere³).


Emantzipatutako gazteen % 3,8k familia ugariaren txartela du. Kasu horiek guztiak 5 pertsona edo gehiago bizi diren etxebizitzetakoak izaten dira, eta pertsona horietatik hiru edo lau adingabeak izaten dira.

Etxebizitzaren edukitza-erregimenari dagokionez, 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen erdiak (% 50,2) jabetzako etxebizitza batean bizi dira. Eta ia beste hainbeste dira alokairuan bizi direnak (% 46,6). Gainerakoak, erabiltzeko lagatako etxebizitzetan bizi dira (% 3,3).

³ Gazteen Euskal Behatokiak kalkulaturakotako ehunekoa, Eustat - Euskal Estatistika Erakundeak 2020an argitaratu dituen biztanleria-datuak oinarri hartuta.

Jabetzako etxebizitzetan bizi direnen artean, gehiago dira erosi dutenak eta hipoteka-kreditu bat ordaintzen ari direnak (% 35,2), erabat ordainduta dutenak (% 11,7) edo oinordetza edo dohaintza bidez jaso dutenak (% 3,3) baino.

2.2. grafikoa



Adinak ere funtsezko aldea ezartzen du edukitza-erregimenean. 30 urtetik beherako pertsona emantzipatuen artean, alokairua da formularik ohikoena (% 64,9); aukera hori, aldiz, gutxiengoa da 30 eta 34 urte bitartekoen artean (% 36,8), gehienek erostearen alde egiten baitute (% 60,1).

Eta edukitza-erregimena bizikidetzamoduarekin lotuz gero, alokairuan bizi diren pertsonen artean (alegia, gazteen artean), lagunekin bizi direnen ehunekoa askoz ere handiagoa da etxebizitza jabetzan dutenen ehunekoa baino (% 20,5 eta % 1,8, hurrenez hurren).

Alokairuarekin jarraituz, ikusten denaren arabera, atzerriko nazionalitatea duten pertsona emantzipatu askoz ere gehiago bizi da alokairuan Espainiako nazionalitatea dutenak baino (% 77,9 eta % 31,0, hurrenez hurren).

Alokairuan bizi diren gazte emantzipatuen ehunez handienak Bizkaian erregistratu dira (% 54,4), eta txikiak Gipuzkoan (% 32,3); Araban, berriz, gazte emantzipatuen % 48,9 bizi da alokairuan.

2.1. taula

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzaren edukitza-erregimena, sexuaren, adinaren, lurralde historikoaren eta nazionalitatearen arabera										
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoa			Nazionalitatea	
		Emakumeak	Gizonak	30 urtetik behera	30-34 urtekoak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Espainarra	Atzeritarra
Jabetzan	50,2	51,6	48,4	31,5	60,1	51,1	43,0	61,8	64,1	22,1
Alokairuan	46,6	45,7	47,7	64,9	36,8	48,9	54,4	32,3	31,0	77,9
Beste bat (lagata...)	3,3	2,7	3,9	3,6	3,1	0,0	2,6	5,9	4,9	0,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	498	261	237	167	331	100	240	158	374	124

Hala ere, dirudienek, alokairuaren aukera ez da gazteek gehien nahi izaten dutena. Alokairuan bizi diren gazte gehienek (% 65,4) diote horrela bizi direla, ez dutelako erosteko diru-sarrera

nahikorik eta egonkorrik. Eta, gainera, % 13,5ek dio behin-behineko irtenbidea dela, erosteko aukera izan arte.

2.3. grafikoa

Alokairuan emantzipatuta zeuden 18 eta 34 urte bitarteko gazteek edukitza-erregimen hori aukeratzeko 2019an emandako arrazoiak (%)



Oro har, alokairuan bizitzearen gogobetetasuna ez da oso handia: % 53,4k dio oso edo nahiko pozik dagoela, eta % 46,4k, berriz, ez dagoela oso pozik edo batere pozik. Hori ez da arraroa, kontuan hartzen badugu alokairuan dauden gazte gehienak horrela bizi direla erosteko diru-sarrera nahikorik eta egonkorrik ez dutelako, eta batzuek, gainera, behin-behineko irtenbidea dela diote, erosteko aukera izan arte.

Alokairuan bizi diren gehienek 451 eurotik 750 eurora bitarteko errentak ordaintzen dituzte hilean. % 14,3k 450 euro baino gutxiago ordaintzen du hilean⁴, eta % 15,9k 750 euro baino gehiago hilean. Hilean, batez beste, 615 euro ordaintzen dute.

Batez besteko hori Euskadiko 2019ko etxebizitza libreen alokairuaren batez besteko errenta baino zertxobait txikiagoa da Alokairu Merkatuaren Estatistikaren arabera (AME), zeinak hileko 668 eurotan ezartzen baitu batez besteko kopuru hori⁵. Estatistika hori Eusko Jaurlaritzako fidantza-gordailuetan oinarritzen da, eta ez higiezin agentziek alokairuko etxebizitzak eskaintzen dituzten zifretan, zifra horiek handiagoak izaten baitira. Izan ere, 2019ko laugarren hiruhilekoan higiezin agentzietan alokairuan eskaintako etxebizitza libreen batez besteko errenta 1.045 eurokoa zen Euskadin⁶; hala ere, horrek ez du esan nahi alokairu-kontratua prezio

⁴ Litekeena da errenta oso baxuak ordaintzen dituztela diotenek pisua partekatzea, eta beren logelagatik edo pisuaren zati batengatik ordaintzen dutena adieraztea. Beraz, batez besteko errenta kontuz aztertu behar da.

⁵ Etxebizitzaren Euskal Behatokia (2020): *Euskadiko Alokairu Politikaren Ebaluazio Txostena* [online]

Hemen erabilgarri:

https://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_alqu_2019/eu_ovv_admi/adjuntos/Alokairua_2019.pdf (33. or.).


⁶ Etxebizitzaren Euskal Behatokia (2020): *Higiezinaren Eskaintzari buruzko Galdetegia (OFIN). Emaizta nagusiak, 2019ko 4. hiruhilekoa* [online] Hemen erabilgarri:

horrengatik sinatzen denik, baina kopuru horiek direla-eta, gazte batzuek alokatzeko gogoia gal dezakete, hori ere litekeena da.

Orain dela lau urteko (2015) emaitzekin alderatuta, ikusten dugu jabetzako etxebizitza batean bizi direnen ehunekoak zertxobait behera egin duela (% 52,5etik % 50,2ra), eta aldi berean, zertxobait gora egin duela alokairuan bizi direnen ehunekoak (% 44,0tik % 46,6ra); hala ere, egia da, era berean, gora egin duela alokairuan bizi diren baina aukera hori etxebizitza erosi ahal izateko behin-behineko irtenbidea dela dioten kopuruak (% 6,9 zen 2015ean eta % 13,5, 2019an).

Alokairuan bizi direnen artean etxebizitza-edukitzea modu horrekiko gogobetetzeak nabarmen egin du behera: 2015ean % 79,1 zeuden pozik, eta 2019an, berriz, % 53,4. Izan ere, etxebizitza erosteko aukera izan arte alokairua aldi baterako irtenbidetzat hartzen dutenen kopurua handitu egin da, baina, horrez gain, alokairuan emantzipatutako gazteek ordaintzen duten errenta, batez beste, handitu egin da: 2015ean, 565 eurokoa zen, eta 2019an, berriz, 615 eurokoa.

2.4. grafikoa



Bestetik, etxebizitza erosi eta hipoteka-kreditu bat ordaintzen ari diren eta ohiko etxebizitza aldatu edo birgaitu nahi ez dutenen artean, kreditua eta interesak amortizatzeko gastuaren hileko batez besteko zenbatekoa 502 eurokoa izan da 2019an.

Espainiako Jabetza eta Merkataritza Erregistratzaileen Elkargoak jaso eta Etxebizitzaren Euskal Behatokiak argitaratzen duen 2019ko laugarren hiruhileko Higiezinaren Erregistro Estatistikaren arabera, Euskadiko hileko batez besteko hipoteka-kuota 636 eurokoa zen 2019ko azken hiruhileko horretan⁷.

Gazteek gastu dezente txikiagoa adierazi dute; baina gogoratu behar da ez direla hipoteka-mailegua duten gazte emantzipatu guztiak, baizik eta soilik etxebizitza aldatzeko edo birgaitzeko premiarik ez dutenak.

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sectorvivienda_ofin_2019t4/eu_def/adjuntos/HEIren-Txostena-2019H4-eu.pdf (14. or.).

⁷ Etxebizitzaren Euskal Behatokia: Higiezinaren Erregistro Estatistika 2019. 4. hiruhilekoa (Excel taulak) [online] Hemen eskuragarri: https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovse04/es/contenidos/estadistica/ovv_registral19/es_def/index.shtml (3.5.1T4 taula).

Etxebizitza aldatzeko edo birgaitzeko beharrik ez duten eta hipoteka-mailegua duten jabetzako etxebizitzetan emantzipatutako gazteei dagokienez⁸, finantza-erakundeek bideragarritzat jotzen duten gehieneko zorpetze-mugaren gainetik dago gazteen % 21,1, etxeko diru-sarrera guztien % 30 hipotekaren kuota ordaintzeko erabiltzen duelako. Eta, are zehatzago, % 10,0k etxeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago erabiltzen du hipoteka-mailegua ordaintzeko, eta horrek argi eta garbi adierazten du etxebizitza horretan bizi direnak gehiegizko esfortzu ekonomikoa egiten ari direla etxebizitza ordaintzeko.

Alokairuan emantzipatutako eta hileko errentan zenbat ordaintzen duten eta etxean zer diru-sarrera dituzten adierazi dutenen artean, hamarretik ia lau gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daude, etxeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago errenta ordaintzeko erabiltzen dutelako (% 38,0).


Guztira, etxebizitza-gastuak eta familiaren diru-sarrerak zein diren adierazi duten eta hipoteka edo alokairua ordaintzen ari diren gazte emantzipatuen % 29,0 gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daude etxebizitzaren kostuak ordaintzeko.

Kalkulu hori 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu guztiak kontuan hartuta egiten badugu, % 14,4 gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daudela ikusten da⁹.

Atzerriko nazionalitatea duten gazte emantzipatuen artean, gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden ehunekoia Espainiako nazionalitatea duten gazte emantzipatuen ehunekoaren halako bi da (% 21,3 eta % 10,9, hurrenez hurren).

2.5. grafikoa

Alokairuan edo hipotekarekin emantzipatutako gazteen etxebizitzako hileko gastuak eta gehiegizko esfortzu ekonomikoa 2019an¹⁰



⁸ Kalkulu hori egiteko oinarria honako hau izan da: etxeko kide guztien artean ordaintzen duten hileko hipoteka-kuotaren zenbatekoa eta hilean irabazten duten kopurua, alegia, hipoteka-kreditu bat ordaintzen ari diren pertsona emantzipatu guztien % 44,1.

⁹ Zifra horrek minimo bat ezar dezake, diru-sarreraren eta/edo gastuen berri eman diguten pertsona emantzipatuak oinarri hartuta kalkulatu baita; baina handiagoa izan liteke pertsona guztiek datu ekonomikoak emango balituzte eta denentzako kalkuluak egin ahal izango bagenu.

¹⁰ Datuak alokairu-errentaren edo hipoteka-kuotaren hileko gastuen berri eta etxeko guztizko diru-sarreraren berri eman duten pertsonen dagozkie.


Emantzipatutako gazteen % 8,7k adierazi du etxeko norbaitek laguntza sozialak edo ekonomikoak jasotzen dituela, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL). Pertsona horien familiako diru-sarrerak gazte emantzipatuen etxeetako batez bestekoa baino dezente txikiagoak dira (hilean 1.299 euro; aldiz, gazte emantzipatuen etxeetan, 2.275 euroko diru-sarrerak izaten dituzte, batez beste).

Etxebizitza ordaintzeko gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden etxeetan bizi diren bost gazte emantzipatutatik batek soilik (% 20,4) adierazi du bere etxean gizarte-laguntzaren bat jasotzen dutela.

Laguntza ekonomiko publikoren bat jasotzen duten gazte emantzipatuen ehunekoak zertxobait behera egin du aurreko urteekin alderatuta (% 12,1, 2015ean, eta % 11,0, 2017an).

2.6. grafikoa

**2019an laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten 18 eta 34 urte
bitarteko gazte emantzipatuak (%)**



Emantzipatutako gazteen % 13,6 etxebizitza babestu batean bizi da: % 9,3k babes ofizialeko etxebizitza du jabetzan, eta % 4,2 alokairuko etxebizitza babestu batean bizi da.

Etxebizitza babestuan (jabetzan edo alokairuan) emantzipatutako gazteen ehunekoa askoz handiagoa da Araban (% 29,7), Bizkaian (% 10,7) edo Gipuzkoan (% 10,5) baino.

Hori ez da harritzekoa; izan ere, 2018an soilik, Araban eskrituratutako etxebizitzaren % 17 zeuden babestuta (2012an, etxebizitza guztien erdia baino gehiago ziren); Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, ehunekoak askoz txikiagoak ziren (% 4,4 eta % 4,8, hurrenez hurren, 2018an¹¹).


Bestetik, Espainiako nazionalitatea duten eta etxebizitza babestu batean bizi diren gazteen ehunekoa atzerriko nazionalitatea izanik etxebizitza babestuan bizi diren gazteen ehunekoaren halako bi da (% 15,9 eta % 8,9, hurrenez hurren).

Etxebizitza babestu batean bizi diren gazte emantzipatuen ehunekoak zertxobait behera egin du 2015etik 2019ra, eta % 15,9tik % 13,6ra jaitsi da. Beherakada hori ulertzeko, kontuan izan beharko litzateke Euskadiko etxebizitza babestuen parkeak 80.110 etxebizitza babestu zituela 2015ean, nahiz eta 2019an 76.452 izan¹².

¹¹ Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

¹² Iturria: Etxebizitzaren Euskal Behatokia (2020). *Euskadiko Alokairu Politikaren Ebaluazio Txostena* (28. or.).

2.7. grafikoa



Azkenik, emantzipatutako gazteen % 57,6rentzat, horixe da okupatzen duen lehen etxebizitza. Hori ohikoagoa da jabetzako etxebizitza batean bizi direnen artean (% 64,5); izan ere, orain beren jabetzako etxebizitza batean bizi diren hiru pertsonatik bik, emantzipatzeko, etxebizitza hori erosi dute edo etxebizitza hori erosi duen norbaitekin bizitzera joan dira. Alokairuan bizi direnen artean, familia-unitateak okupatzen duen lehen etxebizitza dela adierazten dutenak % 49,3 dira, alegia, mugikortasuna ohikoagoa da alokairuan bizi direnen artean.


3. EMANTZIPATUTAKO GAZTEAK BIZI DIREN ETXEBIZITZEN ETA INGURUNEAREN EZAUGARRIAK

Emantzipatutako gazte gehienak (% 83,0) etxebizitza erabiltetan bizi dira; % 17 soilik bizi dira etxebizitza berrietan. Jabetzan emantzipatutako gazteen artean, % 29,1 etxebizitza berri batean bizi dira; alokairuan bizi direnen artean, berriz, % 4,0 baino ez dira etxebizitza berri batean bizi.

Izan ere, emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzetan batez besteko antzinatasuna 42 urtekoa da, hau da, Euskadiko etxebizitza-parkearen batez besteko antzinatasunaren oso antzekoa da (azken hori 45 urtekoa da, Eustaten Etxebizitzaren Udal Estatistikaren arabera¹³).

Zehazki, 50 urtetik gora duten etxebizitzetan bizi da emantzipatutako gazteen % 38,4; 25-50 urte bitarteko antzinatasuna duten etxebizitzetan bizi da gazte emantzipatuen % 33,1; eta 25 urtetik behera duten etxebizitzetan bizi da gazte emantzipatuen % 28,5.

3.1. grafikoa



Etxebizitzaren tamainari dagokionez, emantzipatutako gazte gehienak (% 62,4) 61 eta 90 metro karratu arteko etxebizitzetan bizi dira. 60 m² baino gutxiago duten etxebizitzetan bizi da beste % 19,0, eta 90 m² baino gehiago duten etxebizitzetan gazte emantzipatuen % 18,6.

Gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzetan batez besteko azalera 77,4 m²-koa da. Batez besteko hori Euskadiko etxebizitza-parkearen batez bestekoa baino txikiagoa da; izan ere, Euskadiko etxebizitzetan batez besteko tamaina 87,2 m²-koa da¹⁴.


Arabako gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzetan batez besteko azalera zertxobait handiagoa da (80,6 m²) Gipuzkoako eta Bizkaiko gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzetara baino (78,3 m² eta 75,9 m², hurrenez hurren). Izan ere, Arabako parkeko etxebizitzetan batez besteko azalera (92,3 m²) Gipuzkoakoa (86,9 m²) eta Bizkaikoa (85,8 m²) baino handiagoa da.¹⁵ Nolanahi ere, emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzetan tamaina beti da lurralde horretako etxebizitzetan batez besteko tamaina baino txikiagoa.

¹³ Eustat-Euskal Estatistika Erakundea: *Etxebizitzaren Udal Estatistika 2019* [online]. Hemen eskuragarri: https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_274/opt_1/ti_etxebizitzaren-udal-estatistika/temas.html

¹⁴ Iturria: Eustat. *Etxebizitzaren Udal Estatistika 2019* (ib).

¹⁵ *Ibidem*

3.2. grafikoa



Batez beste, emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzetan 6 gune izaten dira, sukaldea, egongela, logelak eta bainugelak kontuan hartuta. Gazteen etxebizitza gehienek bainugela bakarra dute (% 62,2); hala ere, emantzipatutako gazteen % 37,8k bi bainugela edo gehiago dituzte (Euskadiko etxebizitzaren batez bestekoa baino apur bat gehiago; izan ere, Euskadiko etxebizitza guztien % 33,8k dituzte bi bainugela edo gehiago).

Kasu gehien-gehienetan, emantzipatutako gazteak pisuetan bizi dira (% 95,4). Soilik % 3,4 bizi da familia bakarreko etxebizitza isolatu batean, eta % 1,2 familia bakarreko etxebizitza atxiki batean.

Emantzipatutako gazteen etxebizitzaren % 73,0k igogailua dute eraikinean (Euskadiko etxebizitza-parkearen batez bestekoaren ia ehuneko bera, % 72,6). Gainera, gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzaren % 43,5ek trastelekua du, eta % 33,9k garajea.

Beren jabetzako etxebizitzetan bizi diren gazteek, oro har, alokatutako etxebizitzetan bizi direnek baino prestazio gehiago dituzte. Hori dela eta, 30-34 urte bitartekoek eta emakumeek (bi kolektibo horietan jabetzako etxebizitzetan bizi direnen ehuneko handixeagoa da) 30 urtetik beherakoek eta gizonen baino neurri handiagoan diote igogailua, garajea edo trastelekua dutela.

Baina alderik nabarmenena etxebizitza libreen eta babestuen artean jaso da. Etxebizitza babestuetan bizi direnen artean igogailua, trastelekua eta garajea izatea askoz ere ohikoagoa da, etxebizitza libreetan bizi direnen artean baino.


3.1. taula

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzaren artean, igogailua, garajea eta/edo trastelekua dutenen ehunekoa, sexuaren, adinaren, edukitza-erregimenaren eta etxebizitza motaren arabera									
(%)	GUZTIRA	Sexua		Adina		Edukitza-erregimena		Etxebizitza mota	
		Emakumeak	Gizonak	30 urtetik behera	30-34 urtekoak	Jabetza	Alokairua	Librea	Babestua
Igogailua	73,0	76,7	68,4	69,6	74,8	75,9	68,6	70,0	91,6
Trastelekua	43,5	45,4	41,3	31,7	49,9	57,9	27,9	38,2	77,6
Garajea	33,9	36,7	30,4	19,9	41,3	50,0	17,1	27,0	77,2
(n)	498	261	237	167	331	273	206	424	74

Oro har, emantzipatutako gazte gehienak pozik daude beren etxebizitzarekin: % 50,3k gogobetetze maila altua du, eta %34,5ek nahiko altua.

Gogobetetze-maila altua dutela diotenak soilik kontuan hartuta, gogobetetze-maila handiagoa dute (% 50etik gorakoa) honako hauek: 30-34 urte bitartekoak (% 54,5koa, eta 30 urtetik beherakoen artean, aldiz, % 42,6koa); Araban bizi direnek (% 60,6), eta ondoren, Gipuzkoan bizi direnek (% 55,6); beren jabetzako etxebizitza batean bizi direnek (% 64,1) eta etxebizitza babestuan bizi direnek (% 70,1). Izan ere, horiek dira, hain zuzen ere, etxebizitza handiagoak dituzten eta prestazio gehiago dituzten kolektiboak.

3.3. grafikoa




2019an 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzaren ezaugarriak aurreko urteetakoekin alderatzen baditugu, ikusten da etxebizitza erabilietan bizi diren gazteen kopuruak gora egin duela, eta, beraz, gazteek okupatzen dituzten etxebizitzaren batez besteko antzintasunak gora egin duela. Hala ere, ez da aldaketa nabarmenik egon etxebizitzaren prestazioetan, ezta haiei buruzko gogobetetze-mailan ere.

3.2. taula

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzaren ezaugarri fisikoen bilakaera			
	2015	2017	2019
Etxebizitza erabiliak	%77,3	%76,1	%83,0
Batez besteko antzinatasuna	35 urte	40 urte	42 urte
Pisuak	%95,0	%93,7	%95,4
Batez besteko azalera	77,7 m ²	76,7 m ²	77,4 m ²
Bi bainugela edo gehiago	*	%38,5	%37,8
Igogailua	%72,9	%71,9	%73,0
Trastelekua	%43,6	%50,1	%43,5
Garajea	%33,1	%39,4	%33,9
Gogobetetze maila altua edo nahiko altua	%85,3	%82,3	%84,8
(n)	468	422	498
* Ez dago urte horretako daturik			

Ingurunearen ezaugarriak edo auzoan egon daitezkeen arazoei dagokienez, honako hauek jaso dira: % 51,6k dio ez dagoela aparkalekurik inguruan; % 24,1ek dio ez dagoela zerbitzurik (dendak, bankuak, etab.); % 24,0k dio zaratak daudela; % 21,5ek komunikazio txarrak edo garraio biderik eza salatzen ditu; % 21,1ek elbarrientzako irisgarritasunik eza salatzen du; % 19,7k delinkuentzia edo segurtasunik eza; % 16,4k berdegune gutxi dagoela; % 12,7k kutsadura eta/edo usain txarrak; % 12,5ek garbiketa edo zabor-bilketa gutxi; eta azkenik, % 12,2k mantentze-lanik eza salatzen du (kaleetan eta abarretan).

3.4. grafikoa



Guztira, emantzipatutako gazteen % 83,6k salatu du arazo horietakoren bat duela inguruan.


Hala ere, emantzipatutako gazteen % 55,8k gogobetetze-maila altua du bizi den auzo edo ingurunearekin, eta % 33,5ek gogobetetze-maila nahiko altua du. Soilik % 10,7k du gogobetetze-maila baxua edo nahiko baxua bere bizilekuaren ingurunearekin edo auzoarekin.

4. EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEN ETXEBIZITZA-PREMIA

35 urtetik beherako gazte gehienak ez daude oraindik emantzipatuta; hain zuzen ere, % 64,0 gurasoen etxean bizi dira oraindik.

18-24 urte bitartekoen artean, hamarretik bederatzigazte gurasoekin bizi dira (% 91,9); 25-29 urte bitartekoen artean, hamarretik ia zazpi (% 66,9); eta 30-34 urte bitartekoen artean, hamarretik hiru (% 29,9).

4.1. grafikoa




Hala ere, kolektibo horren % 16,0 bere kontura bizi izan da iraganean: % 12,6 ikasketak edo noizbehinkako lanak egiteagatik, eta % 3,4 emantzipatuta egoteagatik.

Noizbait beren kontura bizi izan direnen ehunekoak gora egiten du adinean gora egin ahala. Eta, are zehatzago, emantzipatuta egon zirela dioten ehunekoa handiagoa da, halaber, adin handiagoa dutenen artean. Izan ere, noizbait beren kontura bizi izan ziren 18 eta 24 urte bitartekoen artean, gehienak ikasketak edo noizbehinkako lanak zirela-eta emantzipatu ziren. Aldiz, 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen artean, hamarretik batek dio aurretik emantzipatuta egon zela.

4.2. grafikoa

Noizbait beren kontura bizi izan diren 18 eta 34 urte bitarteko emantzipatu gabekoen ehunekoa, adinaren arabera




Emantzipatu gabeko hiru pertsonatik batek (% 33,3k) dio etxebizitza bat beharko lukeela, eta horien arteko ia guztiek (% 32,8k) diote etxebizitza hori Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) barruan beharko luketela.

Etxebizitza-premiak gora egiten du adinean aurrera egin ahala. Izan ere, 18 eta 24 urte bitartekoen artean, % 19,5ek dio etxebizitza bat behar duela Euskadin; ehuneko hori % 46,6ra igozten da 25 eta 29 urte bitartekoen artean; eta emantzipatu gabeko 30 eta 34 urte bitartekoen artean, berriz, erdiak baino gehiagok (% 52,9k) dio etxebizitza bat eskuratu beharko lukeela.

4.3. grafikoa

Euskadin etxebizitza behar dutela dioten 18 eta 34 urte bitarteko emantzipatu gabekoen portzentajea, adinaren arabera



Adinean aurrera egin ahala, etxebizitza behar dutela dioten ehunekoak gora egiteaz gain, etxebizitza izateko premia-maila ere handitu egiten da. Horrela, Euskadin etxebizitza bat beharko luketen emantzipatu gabeko pertsonen artean, behar handia edo dezentekoa dutela dioten ehunekoa % 29,9koa da 18 eta 24 urte bitartekoen artean, % 56,9ra igozten da 25 eta 29 urte bitartekoen artean, eta % 65,6ra 30 eta 34 urte bitartekoen artean.

Etxebizitza-premia duten pertsona emantzipatu gabeen artean, independizatzeari da premia horren arrazoi nagusia (% 93,7). Gainera, % 48,2k dio ezkondu edo bikotekidearekin bizi nahi duela, eta % 2,6k, aldiz, etxebizitza behar duela bikotekidearekin hautsi dutelako. % 4,3k dio etxebizitza bat beharko lukeela, lana dela-eta tokiz aldatu behar duelako. Argitu behar da bi arrazoi eman zitezkeela.


Beren lehentasunei dagokienez, etxebizitza hori udalerri berean egotea (% 62,7) edo auzo berean egotea (% 16,3) nahiko lukete gehienek. Bestetik, % 14,8k eskualde berean egotea nahiko luke, eta soilik % 4,2k beste eskualde batean egotea nahiago luke.

Auzo edo udalerri berean etxebizitza bat eskuratzeko lehentasunak nabarmen egin du gora aurreko urteekin alderatuta (% 65,7k nahi zuen 2015ean eta % 68,4k 2017an; eta % 79,0k, berriz, 2019an).

Udalerri berean bizitzea nahiago duten arren, pertsona horien erdiak (% 50,8) udalerriz aldatzeko prest daude, baldin eta, horrela, beren premietara egokitutako ezaugarriak eta prezioa dituen etxebizitza bat eskuratu ahal izango balute; % 40,3k, berriz, ez luke udalerriz aldatuko, eta % 8,9k ez du argi.

4.4. grafikoa

Euskadin etxebizitza behar duten 18 eta 34 urte bitarteko emantzipatu gabeko gazteek etxebizitza horretarako nahiago duten kokapena (%)




Baliabide ekonomikoak kontuan hartuta, etxebizitza alokatzearen aldeko hautua egiten dutenak (% 36,8) etxebizitza erosiko luketenak (% 34,9) adina dira. % 13,9k nahiago luke etxebizitza bat alokatu erosteko aukerarekin, eta gainerako % 14,4ri berdina zaio bata zein bestea.

Emakumeek gehiagotan egiten dute erostearen alde, eta gizon gazteek, berriz, alokatzearen alde.

Adinak gora egin ahala gora egiten du erosi nahi dutenen ehunekoak, eta behera, berriz, alokatu nahi dutenen ehunekoak.

4.5. grafikoa

Euskadin etxebizitza behar duten 18 eta 34 urte bitarteko emantzipatu gabeko gazteek nahiago duten edukitza-erregimena, sexuaren eta adinaren arabera (%)




Nolanahi ere, etxebizitza jabetzan eduki nahi luketenek ez diote alokairuari ukorik egiten, eta horien erdiak (% 50,2) dio alokairuan bizitzea pentsatuko lukeela errentak merkeagoak balira edo alokairuko etxebizitzak egoera hobean baleude, besteak beste.

2015. urteko datuekin alderatuz geroz, ikusten da handitu egin dela erostearen alde egingo luketen gazteen ehunekoa (% 21,1etik % 34,9ra), eta nabarmen egin duela behera erosteko aukera duen alokairuaren alde egingo luketen ehunekoak (% 21,1 zen 2015ean; eta % 13,9 izan da 2019an), bai eta edukitza-formula bat edo beste bat berdin litzaiekeen ehunekoak ere (% 22,8, 2015ean; eta % 14,4, 2019an). Alokairuaren aldeko hautua ia ez da aldatu (% 35,0, 2015ean eta % 36,8, 2019an).

4.6. grafikoa


Euskadin etxebizitza behar duten 18 eta 34 urte bitarteko emantzipatu gabeko gazteek edukitza-erregimenari dagokionez duten lehentasunaren bilakaera (%)



Emantzipatzeko aurreikuspenari dagokionez, etxebizitza behar duten gazteen herenak (% 34,6) uste du bi urteko epean emantzipatu daitekeela. Berriz, % 23,6k uste du lau urte igaro baino lehen emantzipatu ahal izango dela, baina % 41,8k uste du ezin izango dela lau urteko epean emantzipatu.


Adinean aurrera egin ahala, bi urteko epean etxebizitza eskuratu dezaketela uste dutenen ehunekoak ere gora egiten du, halaber. Diru-sarrera propioak izatea erabakigarria da horretarako.

4.7. grafikoa



Izan ere, etxebizitza behar duten pertsona guztiek ezin dute etxebizitza eskuratu. Hasteko, Euskadin etxebizitza behar duten eta diru-sarrera propioak dituztela dioten pertsonen ehunekoa % 65,5 da, hau da, hirutik bi dira. Eta, hala ere, horrek ez du bermatzen etxebizitza bat eskuratu ahal izango dutenik; izan ere, diru-sarrera propioak dituzten hiru pertsonatik batek (% 34,9) baino ez du uste bere diru-sarrerak nahikoak eta egonkorak direla etxebizitza bat eskuratu ahal izateko.

4.8. grafikoa




Horrek esan nahi du EAEn etxebizitza behar duten lau pertsonatik batek soilik dituela etxebizitza eskuratzeko behar adina diru-sarrera nahikoak eta egonkorak (% 22,8).

Termino absolutuetan, 18 eta 34 urte bitarteko 73.000 gazte inguruk diote etxebizitza bat behar dutela Euskadin; pertsona horien artean, 48.000 inguruk diru-sarrera propioak dituzte, baina 17.000 inguruk dute, beren iritziaren arabera, diru-sarrera nahikoak eta egonkorak, eta, beraz, emantzipatzeko egiazko aukerak esku-hartze publikorik gabe.

Etxebizitza behar dutenek eta diru-sarrera propioak dituztenek (diru-sarrera horiek nahikoak eta/edo egonkorak izan ala ez) adierazten dutenaren arabera, batez beste 483 euro erabil litzakete alokairu-errenta ordaintzeko edo, erosiko balute, hipoteka-kuota ordaintzeko. % 2,5ek soilik adierazi du hilean 900 euro baino gehiago erabil litzakeela gastu horietarako, eta gehienak 300 eta 600 euro bitarteko tartean mugitzen dira.

4.9. grafikoa




Hain zuzen ere, alokatzea aurreikusten dutenek, erosteko aukerarekin alokatuko luketenek edo berdin zaienek uste dute hilean gehienez 426 euro erabili ahal izango luketela alokairua ordaintzeko, batez beste. Zifra hori urrun dago Alokairu Merkatuaren Estatistikak ematen duenetik, Euskadiko 2019ko alokairuaren batez bestekoa 668 euro direla baitio. Are gehiago, pertsona horien % 9,8k soilik uste du hilean 600 euro baino gehiago erabil litzakeela alokairu-errenta ordaintzeko.

Bestetik, etxebizitza erosi nahi dutenek, erosteko aukerarekin alokatu nahi dutenek edo berdin zaienek adierazten dutenaren arabera, etxebizitza erosteko aurre egin ahal izango luketen gehieneko prezioa, batez beste, 162.000 eurokoa izango litzateke. % 36,5aren ustez, gehieneko prezioa 150.000 eurotik beherakoa izango litzateke; eta % 36,4aren ustez, gehieneko prezioa 150.000 eta 300.000 euro artekoa izango litzateke. Eta soilik % 2,4k ordaindu ahal izango luke 300.000 eurotik gorako prezioa. Laurdenak (% 24,6) ez du erantzun.

Erabilitako etxebizitza librearen batez besteko prezioa 232.100 eurokoa izan zen 2019ko laugarren hiruhilekoan (etxebizitza berria baino eskuragarriagoa), Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak argitaratutako 2019ko laugarren hiruhileko Higiezen Eskaintzari buruzko Galdetegiaren emaitzen txosteneko datuen arabera.¹⁶ Etxebizitza behar duten eta diru-sarrera propioak dituzten gazte emantzipatu gabeen ustez, ordaindu ahal izango luketen gehieneko prezioa (162.000 euro) baino 70.000 euro handiagoa da zenbateko hori.

4.10. grafikoa

2019an etxebizitza behar duten eta diru-sarrera propioak dituzten gazte emantzipatu gabeek beren gain har lezaketen gastu-kopurua, bai erosteko edo bai alokatzeko, merkatuko batez besteko gastuaren aldean.




¹⁶ Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila (2020): *2019ko laugarren hiruhilekoko Higiezen Eskaintzari buruzko galdetegi. Emaitza nagusiak*. EAE [online] Hemen eskuragarri: https://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sectorvivienda_ofin_2019t4/eu_def/adjuntos/HEIren-Txostena-2019H4-eu.pdf

Etorkizuneko etxebizitzaren edukitza-erregimena edozein izanda ere, erosketa-gastuei edo alokairuaren hasierako gastuei (fidantza, abalak, higiezin agentziaren ordainsariak, etab.) aurre egiteko, % 82,2k kreditu batekin finantzatzea erabakiko luke (erosiz gero, kreditu hori etxebizitzaren guztizko prezioaren % 70 izango litzateke, batez beste, gazteen kalkuluen arabera); % 63,6k aurrezki propioekin finantzatuko luke; % 52,5ek senitartekoen laguntzarekin; eta % 14,4k laguntza publikoekin.

Aurreko zifren arabera, bereziki nabarmendu daiteke etxebizitza-premia duten gazte emantzipatu gabeen erdiak baino gehiagok, diru-sarrera propioak izan arren, familiaren laguntza ekonomikoa izatea espero dutela etorkizuneko etxebizitza finantzatu ahal izateko.

4.11. grafikoa

Etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko emantzipatu gabeko gazteen artean, etorkizuneko etxebizitzaren erosketa-gastuei edo alokairuaren gastuei aurre egiteko ondoko baliabideak erabiliko litzaketenen ehunekoak



Aurreko urteekin alderatuta, ikusten da bi urteko epean emantzipatzeko aurreikuspenak zertxobait jaitsi direla 2015arekin alderatuta (% 38,1), baina modu nabarmenean 2017koekin alderatuta (% 46,6).


Horren arrazoiak izan daiteke murriztu egin dela EAEn etxebizitza-premia izanik diru-sarrera propioak dituzten gazte emantzipatu gabeen ehunekoa: 2015ean, % 68,1ek zuten diru-sarrera propioak; 2017an, % 71,4k; eta 2019an, % 65,5ek.

Eta, nahiz eta etxebizitza ordaintzeko norberaren gain hartzekoa den hileko gastua (hau da, alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzekoa) pixka bat handitu den (447 euro hileko 2017an eta 483 euro hileko 2019an), esan behar da nabarmen handitu dela etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituztenen artean etxebizitzaren gastuak finantzatzeko kreditu, familia-laguntza eta laguntza publikoetara joko luketela adierazten duten gazteen ehunekoa, batez ere familiari laguntza eskatuko liezaiketenen gazteen ehunekoa, % 27,9tik % 52,5era igo baita¹⁷.

¹⁷ 2015ean, diru-sarrera propio nahikoak eta egonkorrak zituzten pertsonen soilik galdetu zitzaizkien zer hileko gastu onar zezaketene eta zer finantzaketa-modu erabiliko zuten etorkizuneko etxebizitzarentzat. Beraz, erantzunak ezin dira alderatu, eta ez dira atal honetan sartu.

4.12. grafikoa

Etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten 18-34 urteko emantzipatu gabeko gazteen artean, etorkizuneko etxebizitzaren erosketa-gastuei edo alokairu-gastuei aurre egiteko ondoko baliabideak erabiliko lituzketenen ehunekoen bilakaera



5. ETXEBIZITZA-PREMIA DUTEN GAZTE EMANTZIPATU GABEEN IRITZIAK


ETXEBIZITZA-ARAZOAREN KONPONBIDEEI BURUZ

Etxebizitzaren arazoari irtenbideak bilatzeko orduan, Euskadin etxebizitza-premia duten gazte emantzipatu gabeek galdetu zaie zein diren, haien ustez, arazoa konpontzen lagunduko luketen bi neurri nagusiak, proposatutako zerrenda baten barruan.

Gazteek gehien babesten dituzten hiru neurriak honako hauek dira: alokairu-errenta merkeagoak dituen alokairu-erregimena sustatzea, etxebizitza babestu gehiago egitea eta etxebizitza erosteko laguntza gehiago ematea. Hau da, gazteek bai alokatzeko zein erosteko irtenbideak ere bilatzen dituzte.

5.1. grafikoa

Etxebizitza-arazoaren konponbide nagusiak, EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen iritziz (%)



Adinean aurrera egin ahala, erostera bideratutako neurriak babesten dituzten gazteen ehunekoak gora egiten du (etxebizitza erosteko laguntza gehiago ematea, adibidez), eta behera, berriz, alokairura bideratutako neurriak defendatzen dituztenen ehunekoak (errenta merkeagoak dituen alokairu-erregimena sustatzea, adibidez).

Gipuzkoako gazteen artean, gehiago nabarmendu dute errenta merkeagoak dituen alokairu-erregimena sustatzeko eta etxebizitza babestu gehiago egiteko beharra, Arabako edo Bizkaiko gazteen artean baino; Bizkaiko gazteen artean, ordea, gainerako lurraldeen artean baino gehiago nabarmendu dute etxebizitza erosteko laguntza gehiago emateko premia.

Nolanahi ere, kolektibo horien guztien arabera, etxebizitzaren arazoaren konponbide nagusia errenta merkeagoak dituen alokairu-erregimena sustatzea da.

5.1. taula


Etxebizitza-arazoaren konponbide nagusiak, EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen iritziz, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera									
(neurri bakoitza babestu duten gazteen %)	GUZTIRA	Sexua		Adina			Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	18-24 urte	25-29 urte	30-34 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Alokairu-erregimena sustatu errenta merkeagoekin	51,4	49,7	52,8	55,7	52,4	44,0	49,1	46,3	58,8
Babestutako etxebizitza gehiago egin	34,9	32,2	37,3	33,6	37,2	32,6	30,4	32,6	39,4
Etxebizitza erosteko laguntza gehiago eman	32,2	34,7	29,9	26,3	31,2	41,5	31,3	35,7	27,9
(n)	566	257	309	202	233	131	116	230	220

Gainera, EAEn etxebizitza-premia duten lau pertsona emantzipatu gabetik hiru (% 73,6) erabat ados edo nahiko ados dago eraikitzen diren etxebizitza babestu gehienak alokairu-erregimenean eraikitzearekin.

Eta gehiengoa dira, halaber, Euskadin etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko pertsonen artean, etxebizitza hutsei kanon edo zerga bat jartzearekin ados (erabat ados edo nahiko ados) daudenak (% 62,1).

Neurri horiek gehiago babesten dituzte 30 urtetik beherakoek 30 eta 34 urte bitartekoek baino.

5.2. grafikoa




Ezin da aztertu gazteek etxebizitza-politikaren inguruan dituzten iritzien bilakaera; izan ere, aurreko urteetan diru-sarrera propioak zituztenei soilik egin zitzaizkien galdera horiek.

Etxebide - Etxebizitzaren Euskal Zerbitzu Publikoa erabiltzeari dagokionez, EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen erdiek (% 49,2) zerbitzu hori ezagutzen dutela diote. Beste laurden batek (% 25,5) dio Etxebideri buruz hitz egiten entzun duela, baina ez duela Etxebide zuzenean ezagutzen. Eta beste % 25,4k aitortzen du ez duela Etxebide ezagutzen.

Ezagutzen dutenen artean, erdiak baino gutxiagok dute izena emanda gaur egun (% 17,5), edo iraganean eman zuten izena baina dagoeneko ez daude inskribatuta (% 2,3).

Gaur egun izena emanda dauden artean, erosketa-eskaera alokairu-eskaera baino pixka bat handiagoa da.

5.3 grafikoa



Adinean aurrera egin ahala, Etxebide ezagutzen duten gazteen ehunekoak ere gora egiten du; galdeketa egin den unean izena emanda dauden ehunekoa, aldiz, zertxobait handiagoa da tarteko adin-taldean (25-29 urte).

Gehiago dira Etxebide ezagutzen duten emakumeak, gizonak baino; bai eta Etxebiden izena ematen duten emakumeak ere.

5.2. taula

Etxebide ezagutzea eta bertan izena ematea, 2019an Euskadin etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen artean, sexuaren eta adinaren arabera						
(%)	TOTAL	Sexua		Adina		
		Emakumeak	Gizonak	18-24 urte	25-29 urte	30-34 urte
Etxebide ezagutzen dute	49,2	51,5	47,1	32,8	55,8	59,2
<i>Orain izena emanda daude</i>	17,5	22,7	12,7	11,6	21,5	18,4
Erosteke	8,7	10,9	6,7	5,5	11,8	7,5
Alokatzeke	6,9	9,5	4,5	6,1	8,1	6,0
Ed/Ee	1,9	2,3	1,5	0,0	1,6	4,8
<i>Orain ez, baina lehen bai</i>	2,3	2,3	2,3	0,4	2,0	5,2
<i>Inoiz ez dute izena eman</i>	29,4	26,5	32,0	20,8	32,3	35,6
Etxebideri buruz hitz egiten entzun dute, baina ez dute zuzenean	25,5	25,2	25,7	19,4	26,9	30,9
Ez dute Etxebide ezagutzen	25,4	23,3	27,2	47,8	17,3	9,9
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	566	257	309	202	233	131

EAEn etxebizitza-premia duten eta emantzipatu gabe dauden gazteen artean, Etxebiden izena emanda daudela dioten ehunekoak zertxobait gora egin du 2015. urtearekiko (% 14,5), eta 2017ko ehunekoaren oso antzekoa da (% 17,8).

6. EMAITZA ESANGURATSUENAK

2019an, 18 eta 34 urte bitarteko gazteen herena baino zertxobait gehiago zegoen emantzipatuta (% 36); izan ere, azken urteotan ikusi denez, Euskadiko gazteen emantzipatzeko batez besteko adina 30 urte ingurukoa da. Emantzipatzeko batez besteko adin hori Europako batez bestekoa baino geroago gertatzen da, eta, horren ondorioz, emantzipatutako pertsonen ehunekoa Europar Batasuneko batez bestekoa baino txikiagoa da.

Pertsona emantzipatuen ehunekoa ia berdintsua da jabetzako etxebizitza batean bizi direnei eta alokairuan bizi direnei dagokionez (% 50,2 eta % 46,6, hurrenez hurren). Hala ere, gazteen lehentasunezko aukera jabetza da; izan ere, alokairuan bizi diren gehienek adierazten dutenaren arabera, alokairuan bizi dira erosi ahal izateko diru-sarrerara nahikorik eta/edo egonkorrik ez dutelako.

Alokairuan bizi diren gazteek hilean 615 euroko errenta ordaintzen dute, batez beste. Batez besteko horrek gora egin du aurreko urteekin alderatuta, baina Euskadiko etxebizitza libreen batez besteko alokairu-errenta baino txikiagoa da. Hala ere, alokairuan bizi diren hamar pertsona gaztetik ia lau (% 38) gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daude, etxeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago alokairu-errenta ordaintzeko erabiltzen dutelako.

Jabetzako etxebizitza batean bizi direnen kasuan, gehienak hipoteka-kreditu bat ordaintzen ari dira. Ez dugu pertsona horien guztien daturik, etxebizitza aldatu edo birgaitu behar ez dutenen datuak soilik; baina eskuragarri ditugun datuen arabera, ikusten dugu hileko batez besteko kuota 502 eurokoa dela, hau da, alokairuko batez besteko gastua baino kuota nahiko txikiagoa dutela, eta arrazoi hori dela eta, gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden ehunekoa % 10ekoa da.

Etxebizitza ordaintzeko gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dagoen bost pertsonatik batek soilik dio etxeko kideren batek gizarte-laguntzaren bat jasotzen duela, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL).

Emantzipatutako gazteak etxebizitza erabilietan bizi dira batez ere; etxebizitza horiek 42 urteko antzinatasuna eta 77 metro koadroko tamaina izaten dute, batez beste, eta bertan, 3 pertsona bizi dira, batez beste (2,9 zehazki). Gehienetan, igogailua izaten dute; baina trastelekua duten etxebizitzak erdia baino gutxiago dira, eta hirutik batek baino ez du garajea.

Etxebizitza babestu batean bizi diren gazte emantzipatuen ehunekoa % 13,6 da, baina lurraldeen artean alde handiak daude; izan ere, Araban ehuneko hori % 29,7ra arte igotzen da, eta logikoa da, lurralde horretan etxebizitza babestuen bolumena handiagoa delako.

Emantzipatutako gazte gehienak pozik daude beren etxebizitzarekin eta ingurunearekin, baina gehienek auzoan arazoren bat dagoela salatzen dute, batez ere aparkalekurik ez dagoela.

Bestalde, emantzipatu gabeko pertsonen artean, hirutik batek (% 32,8) adierazi du etxebizitza bat beharko lukeela Euskadin. Adinean aurrera egin ahala, etxebizitza-premiak ere gora egiten du, eta % 52,9ra iristen da 30 eta 34 urte bitartekoen artean.

Baliabide ekonomikoak kontuan hartuta, etxebizitza alokatzearen aldeko hautua egiten dutenak (% 36,8) etxebizitza erosiko luketenak (% 34,9) adina dira ia-ia. Adinean aurrera egin ahala, erostearen aldeko hautuak ere gora egiten du.

Hala ere, Euskadin etxebizitza-premia duten pertsona guztiek ez dute diru-sarrerara propiorik, izan ere, hirutik bik dauzkate diru-sarrerara propioak (% 65,5). Pertsona horiek, batez beste, 483 euro erabil litzakete hilean etxebizitza finantzatzeko. Hala ere, zifra hori Euskadiko batez besteko alokairu-errentaren aldean urrun geratzen da. Izan ere, Euskadin etxebizitza-premia duten eta alokatzea (edo erosteko aukerarekin alokatzea edo berdin zaie edukitza-erregimena)

aurreikusten duten emantzipatu gabeko hamar pertsonatik batek soilik egin liezaioke aurre alokairuaren batez besteko errentaren gastuari.

Erostearen alde eginez gero, ordain daitekeen prezio maximoa, batez beste, merkatu libreko etxebizitzaren prezioa baino dezente txikiagoa da (alegia, 162.000 euro; aldiz, etxebizitza erabili batek Euskadin, batez beste, 232.100 euro balio du).

Termino absolutuetan, emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko 73.000 pertsona inguruk diote etxebizitza bat behar dutela Euskadin; hala ere, 17.000 inguruk diote diru-sarrera nahikoak eta egonkorak dituztela etxebizitza-gastuari aurre egiteko, beren hitzen arabera.

Horregatik, kreditu, aurrezki edo laguntza publikoez gain, Euskadin etxebizitza-premia duten eta diru-sarrera propioak dituzten (diru-sarrera horiek nahikoak eta/edo egonkorak izan ala ez) gazte emantzipatu gabeen erdiak baino gehiagok (% 52,5) familiaren laguntza izatea espero du etxebizitzaren gastuak finantzatzeko, dela erosketa, dela alokairuaren hasierako gastuak (hala nola fidantza, abalak etab.) finantzatzeko; eta % 17,5 Etxebiden izena emanda dago babes ofizialeko etxebizitza bat jabetzan edo alokairuan eskuratu ahal izateko.

Azkenik, hartu beharreko hainbat neurriren artean, Euskadin etxebizitza-premia duten gazte emantzipatu gabeen erdiak (% 51,4) adierazi du etxebizitzaren arazoari aurre egiteko konponbide nagusia errenta merkeagoko alokairu-erregimena sustatzea izango litzatekeela. Gainera, heren batek (% 34,9) dio etxebizitza babestu gehiago egin beharko liratekeela, eta gutxi gorabehera beste hainbatek (% 32,2) uste du etxebizitza erosteko laguntza gehiago eman beharko liratekeela.

Datu horiek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Estatistika Organo Bereziak bi urtean behin egiten duen Etxebizitza Beharrei buruzko Inkesta hartzen dute oinarri. Estatistika Organo horrek 18 eta 34 urte bitarteko gazteei buruzko datu-baseak utzi dizkio Gazteen Euskal Behatokiari, horrek datu horiek aztertu eta ustia ditzan. Beraz, Gazteen Euskal Behatokiak hartu du datuok aztertzeko eta txosten hau idazteko ardura.